

3. Funtsezko elkarteak

Funtsezko elkarteak negozio-eredu jakin batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkide sarea da. Beraz, gure enpresa aurrera eramateko, beste enpresa edo entitate batzuen laguntza eta aportazioak behar izango ditugu. Gure kasuan, ondorengo funtsezko elkarteak izango ditugu:

Hasteko, bankuaren laguntza behar dugu gure enpresa aurrera eraman ahal izateko, izan ere, mailegu bat eskatuko dugu. Zerbitzu hori eskainiko digun bankua **Kutxabank** izango da, Gasteizko Posta kalean dagoena.

Gainera, materiala hornituko digun enpresa bat aukeratu dugu: **Electrotécnica Industrial y Naval S.L. (ELINSA)** A Coruñan kokatuta dago. Enpresa honek gure kuadro elektrikoa ekoizteaz arduratuko da.

Garraiorako enpresa bat kontratatu dugu, ELINSAko materialak Galiziatik Gasteizera garraiatuko dituen: **Transportes Transvolando SL** (Getafen kokatutakoa).

Hasteko, gure produktua heltzeko garraio enpresa bat kontratatu egin dugu. Lehen aipatu dugun bezala, enpresa hau **Transportes Transvolando SL** da. Getafeko enpresa da, bertatik A coruñara joango da materiala hartzeko, eta Coruñatik, Gasteizera.

Bestalde, app-a garatuko digun enpresa bat kontratatuko dugu: **appyweb**. Appyweb online marketineko agentzia bat da, eta honen bitartez aplikazioa sortuko dugu.